



**gure patioa
nuestro patio**

||
Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



CPEIP Virgen Blanca HLHIP

Argitalpen hau Huarte Zentroko hezkuntza-taldeak diseinatu eta koordinatzen du.

Esta publicación está diseñada y coordinada por el equipo educativo del Centro Huarte.

Textuak / Textos

Betisa Ojanguren

Leire Urbeltz

Ainhora Artxanko

Patricia Aguilera

Ilustrazioak / Ilustraciones

Leire Urbeltz

Maketazio eta diseimua /

Diseño y maquetación

Iratxe Esteve

Tradukzioa / Traducción

Maidier Lizoain

Risografian inprimatzea /

Impresión en risografía

Centro Huarte

gure patioa
nuestro patio

Sa rre ra

Ikastetxearen eta jolastokiaren artean harreman aberasgarria dago, hainbat elementu barne hartzen dituena: gatazka eta erronka, norberaren zein taldearen bizipenak, arkitektura, jolasa, generoa eta gorputzak. Proiektu honetan, sormenerako espazio hori beste toki batera eraman dugu: esploratzeke dagoen eremu batera.

Uharteko Vigen Blanca eskola publikoko LH 2 mailako ikasgela guztien ikerketa artistikoaren erdigune izan da jolastokia lau ikasturtez (2016-2020).

Uharte Arte Garaikide Zentroan epe luzeko hezkuntza-proiektuen aldeko apustua egiten dugu. Horien baitan, esperientzia kolektiboak eraldaketarako espazio txiki bat sor dezake tokiko testuinguruan, arte garaikidetik datozen prozesuen bidez.

Argitalpen honek helburu bikoitza dauka: alde batetik, parte hartu duten ikasleek bizitako ikerketa-prozesuen eta sortutako galdera eta ezagutzen berri ematea; bestetik, hezkuntza-baliabide gisa erabili ahal izatea beste testuinguru batzuetan.

Fanzine honen bidez, argitalpen hau jasoko duten pertsonak hainbat modutan erabil ditzaketen erreferenteak, prozesuak eta galderak proposatu nahi ditugu. Kontakizun bat sortu nahi dugu (partziala, halabeharrez) irakasleek, hezitzaileek eta ikasleek egindako lanaren garrantzia azpimarratzeko. Aldarrikatu nahi dugu sormen-prozesuak ikasgelarako ikasketak-prozesu ere badirela, eta testuinguru hurbilenak birpentsatzeko tresnak direla. Izandako esperientzia erregistratuta utzi nahi dugu, bizi izan dutenentzat nahiz bizi izan ez dutenentzat oroitzapen, oroigarri eta lekuko gisa balio dezan. Bukaera eman nahi diogu partekatutako denbora-tarteari.

Maitasun eta gogo handiz egin dugu pandemia garaian. Gelditu, eta arnasa hartzen duen norbaiten begiradarekin. Eta ikastetxeetan lan egiteko modu berriak asmatzen jarraitzeko itxaropena dugu.

Eskerrik asko Virgen Blanca IPko zuzendaritzari, parte hartu duten irakasle guztiei (Patriciari eta Izaskuni, bereziki), parte hartu duen hezkuntza-taldeari (Harriri, Mirariri eta Leireri), eta, nola ez, azken lau urteotako ikasle guztiei.

Introducción

La escuela y su patio mantienen una relación rica desde el conflicto y el reto, la vivencia personal y colectiva, la arquitectura, el juego, el género y los cuerpos. Un espacio creativo que resituamos en este proyecto para colocarlo en otro lugar, un terreno por explorar.

El patio es el centro de una investigación artística colectiva de todas las aulas de 2º de primaria del colegio público Virgen Blanca de Huarte durante cuatro cursos seguidos (2016-2020).

Desde el Centro Huarte de Arte Contemporáneo apostamos por proyectos educativos de largo recorrido en los que la experiencia colectiva, a través de procesos venidos del arte contemporáneo, pueda generar un pequeño espacio de transformación en el contexto local.

Realizamos esta publicación con un doble objetivo: por un lado, dar cuenta de los procesos de investigación vividos y las preguntas y saberes generados por el alumnado participante; y por otro, servir de recurso educativo para otros contextos.

Con este fanzine queremos proponer referentes, procesos y preguntas que puedan ser usados de maneras distintas por quien lo recoja. Queremos generar un relato, necesariamente sesgado, con el que poner en valor el trabajo realizado por docentes, educadoras y alumnado. Queremos reivindicar los procesos creativos como procesos de aprendizaje para el aula, como herramientas con las que repensar nuestros contextos más cercanos. Queremos dejar un registro de la experiencia a fin de poder servir de memoria, recuerdo, constancia para quienes lo han vivido y quienes no. Queremos poner fin a un tiempo compartido.

Lo hemos hecho con mucho cariño y ganas durante la pandemia. Desde la mirada de alguien que para, de alguien que respira. Y con la esperanza de seguir inventando otras maneras de trabajar en las escuelas.

Gracias a la dirección del CP Virgen Blanca, a todo el profesorado participante, en especial a Patricia y a Izaskun, al equipo de educación que ha participado Harri, Mirari y Leire, y por supuesto a todo el alumnado de estos últimos cuatro años.


1.

Nola sortu zen edizio honetako proiektua? Lehenengo saioa. ¿Cómo surge el proyecto en esta edición? Primera sesión.

Zer rol dute emozioek jolastokian? Ba al dakigu haiek antzematen eta espazio fisikoan kokatzen? Nola jokatzeko dute gure gorputzek espazio horretan? Horiek izan ziren ikasleekin hitz egiten hasteko baliatu genituen galderetako batzuk. Elkarrizketa horretan, jolastokiari lotutako emozioen zerrenda bat egin genuen, hortik abiatuta lehenengo ediziorako lan-saioak diseinatu ahal izateko.

¿Qué papel juegan las emociones en el patio? ¿Sabemos reconocerlas y situarlas en el espacio físico? ¿Cómo se comportan nuestros cuerpos en ese espacio? Son algunas de las preguntas que sirvieron de detonante para mantener una conversación inicial con el alumnado. En el transcurso de esa conversación hicimos un listado de emociones vinculadas al patio para, desde ahí, diseñar el resto de sesiones de trabajo de esta primera edición.





Ikasgelan izandako bat jolastokira eramaten elkarrizketaren zati bat jolastokira eramaten saiatu ginen. Geure buruak "in situ" marraztu genituen, eguneroko gauzak egiten. Ikasgelan aipatutako iritzi eta esperientzia batzuk osatu, eraldatu edo finkatu egin ziren haiek gertatzen ziren toki zehatzera eraman genituenean. "Beste" sentipen eta esperientzia batzuk biltzea erabaki genuen, jolastokia erabiltzen duten beste pertsona batzuei galdetuz: ikasleei, irakasleei eta mantentze-lanetako langileei.

Intentamos trasladar al patio parte de la conversación mantenida previamente en el aula. Nos dibujamos "in situ" representando distintos usos cotidianos o vivencias. Algunas opiniones y experiencias narradas en el aula se completaron, transformaron o asentaron al trasladarlas al lugar específico donde ocurrían. Acordamos recoger "otros" sentires y experiencias preguntando a otras personas usuarias del patio: alumnado, profesorado o personal de mantenimiento.

2.

Erreferente batzuk, eta nola erabili genituen.


Algunos referentes y cómo se usaron.

Mapak lurraldearekin erlaxionatutako ibilbide emozional eta bizipeneko erregistratzeko tresna gisa erabiltzeak inspirazioz bete gintuen. Ikuspegi horretatik, jolastokia irudikatzen zuten hainbat mapa sortu genituen. Gure ikerketa txikian bildutako datuen eta esperientzien inguruan pentsatzeko balio izan zizkiguten mapek, baita horiek biltzeko eta ordenatzeko ere.

Argazki-collage kubista erabili genuen toki ezagun bat ikuspegi berri batetik geureganatzeko teknika gisa. Horri esker, eguneroko espazio horretaz jabetu ahal izan ginen hausnarketa formal baten bidez.

El mapa como registro de un recorrido emocional y vivencial en relación con el territorio fue inspirador para el desarrollo de varias propuestas con el alumnado. Desde esa mirada, creamos distintos mapas representando el patio. Los mapas nos sirvieron, por un lado, de herramientas para pensar los datos y las experiencias recopiladas en nuestra pequeña investigación y, por el otro, para recogerlos y ordenarlos.

Usamos el collage fotográfico cubista como técnica con la que hacer propio un lugar conocido desde una nueva perspectiva. Eso nos permitió aprehender este espacio cotidiano desde una reflexión formal.



Teresa Sabaté.
www.tresnaka.net/
teresa-sabate

David Hockney-
ren collage-a.
Iturria: Las Nubes,
Bartzelonako
Unibertsitateko
literatur,
filosofia eta arte
aldizkaria.

Collage de David
Hockney. Fuente:
Revista Las Nubes
de Literatura,
Filosofía y arte.
Universidad de
Barcelona.



3.

Lan-saioen bidezko prozesuaren eskema.

Breve síntesis del proceso de trabajo por sesiones.

Bigarren saioa: Gure gorputzak erabili genituen jolastokian, dinamiken bidez. Adibidea: patioa gure gorputzarekin neurtu, ezinezkoak ziren egoerak imajinatu eta geure burua grabatu haietan egongo bagina bezala mugitzen ginen bitartean (urpeko jolastoki batean, sugez betetako batean, zorua puxtarriz beteta zuen batean...).

- Denbora: Ordu 1. // Materiala: argazki-kamerak.

Hirugarren saioa: Patioari argazkiak atera genizkion ahal izan genuen perspektiba guztietatik. Gero, argazki horiekin, argazki-collage bat sortu eta osatu egin genuen, errealitate berri bat asmatuz eta collagearen inguruan marraztuz.

Era berean, talde txikietan, jolastokiaren plano marraztuta zeukan mihise batetik pasatu ginen. Horren gainean, bakoitzak bere erara, koloretako orbanak egin behar zituen emozioak kokatzeko. Orban handiek emozio biziagoak adierazten zituzten, eta, txikiek, intentsitate gutxiagoak. Mapan kokatzeko 5 emozioak lehenago adostu genituen, baita bakoitzari zegokion kolorea ere (adibidez, tristurari urdina, pozari horia, etab.).

- Denbora: 2 ordu. // Materiala: jolastokiaren argazkien fotokopiak, guraizeak, itsasgarria eta koloretako arkatzak, mihisea, astoa, pintzelak eta margo akrilikoak.

Segunda sesión: Usamos nuestros cuerpos en el patio con dinámicas. Ejemplo: medir el patio con nuestros cuerpos, imaginar escenarios imposibles y grabarnos moviéndonos en ellos (un patio submarino, uno lleno de serpientes, uno lleno de canicas en el suelo...).

- Tiempo: 1 hora. // Materiales: cámaras de fotos.

Tercera sesión: Sobre fotos del patio desde todas las perspectivas posibles creamos un collage fotográfico y lo completamos, inventándonos una nueva realidad que dibujamos a su alrededor.

En paralelo, en grupos pequeños, pasamos por un lienzo con el plano del patio ya dibujado. Sobre él, de manera individual, tenían que hacer manchas de colores ubicando distintos estados de ánimo. Una mancha más grande es un sentimiento más intenso, una mancha pequeña es un sentimiento menos intenso. Previamente consensuamos los 5 sentimientos a situar en el mapa y su código de color (ejemplo: tristeza - azul, alegría- amarillo, etc...).

- Tiempo: 2 horas. // Materiales: Fotocopias de fotos del patio, tijeras, pegamentos y lápices de colores, lienzo, caballete, pinceles y pintura acrílica.



Laugarren saioa: Egindako 4 fotomuntaketak zoruan jarri, eta marko bat osatu genuen. Markoaren barruan jolastokiaren mapa/irudikapen bat egin genuen, kolorearen arabera multzokatutako hainbat materialekin. Aurreko saioan bukatutako mihisea bertan genuen, erreferentzia gisa.


Ikasleek, txandaka, argazki bat ateratzen zioten prozesuari 5 minutuan behin, eta argazki horiekin stop-motion animaziozko bideo labur bat muntatu genuen.

- Denbora: 2 ordu. // Materiala: oihalak, plastikozko tapoiak, egurra, kartoia, papera... (material birziklagarriak batik batik) tripode bat, kamera bat.

Cuarta sesión: Creamos un marco en el suelo con los 4 fotomontajes realizados. Dentro hicimos un mapa/representación del patio con materiales variados divididos por colores. El lienzo terminado de la sesión anterior estaba presente en la sala a modo de guía.

El alumnado se turnaba cada 5 minutos para hacer una foto del proceso con las que se montó un pequeño video de animación stop-motion.

- Tiempo: 2 horas // Materiales: telas, tapones de plástico, maderas, cartones, papeles... (materiales de reciclaje en su mayoría) un trípode, una cámara.



Bosgarren saioa: Bideoa eta ordura arte sortutako material guztia ikusi genituen. Bizitako produkzio eta prozesu guztien argazkiekin fanzine bat diseinatu genuen, ikerketa osoa bilduko zuena, eta beste pertsona batzuegana iristeko balioko zuena. Fanzineen adibideak ikusi, eta formatu orokor bat aukeratu genuen. Taldeka,


edukiak maketatu, eta zirriborroak egin genituen. Hezitzaileok arduratu ginen fanzineak inprimatzeaz Uharte Zentroko PrintLABean, RISOaren bidez (risografia-makina).

- Denbora: 2 ordu. // Materiala: saio bakoitzeko argazkiak, kartoi meheak, errotuladoreak, guraizeak, arkatzak, itsasgarria...

Quinta sesión: Vimos el vídeo y todo el material generado hasta el momento. Con fotos de todas las producciones y los procesos vividos, diseñamos un fanzine que recogiera nuestras investigaciones y pudiera hacerlas llegar a otras personas. Vimos ejemplos de fanzines y decidimos un formato general. Por grupos, maquetamos los contenidos y creamos bocetos. Las

educadoras nos encargamos de imprimirlos en el PRITLAB del Centro Huarte con la RISO (máquina de risografía).

- Tiempo: 2 horas // Materiales: fotos de cada sesión, cartulinas, rotuladores, tijeras, lápices, pegamentos...



Seigarren saioa: Fanzinea aurkeztu genuen eta 5 kopia eman genizkion ikasle bakoitzari. Bizitako esperientziari buruz eztabaidatu genuen, eta ea nori emango zizkioten argitalpenaren kopiak.

- Denbora: Ordu 1. // Materiala: fanzine bukatuak.

Sexta sesión: Presentamos el fanzine y entregamos 5 copias a cada alumnx. Debatimos sobre la experiencia vivida y sobre a quienes le iban a dar copia de la publicación.

- Tiempo: 1 hora // Materiales: los fanzines terminados.



Esperientzia honetatik sortutako galdera. Pregunta surgida de esta experiencia.

Nola jar daiteke agerian, eskolan nahiz eskolatik kanpo, horrelako proiektuetan ikasleek egiten duten ikerketa-lana? “Jolastokiari buruzko ikerketa artistikorako talde” gisa definitzen ziren parte-hartzaileak; hortaz, hasieratik zegoen ikerketa partekatzeo ideia, nahiz eta hori egiteko modua argi ez izan. Bigarren mailako kontua zen hasieran, baina, aurrera egin ahala, konponbiderik gabeko behar hori sumatzen hasi ginen. Azkenean, Uharte Zentroko hezitzaile-taldeak hartu zuen erabakia, ikasleekin eztabaida sakonik egin gabe.

¿Cómo se puede visibilizar, dentro y fuera de la escuela, el trabajo de investigación que hace el alumnado en este tipo de proyectos?

El grupo se definía como “equipo de investigación artística sobre el patio” por lo que, sin saber muy bien cómo resolverlo, la idea de compartir la investigación ha estado presente desde el inicio. Al principio era algo secundario, pero conforme avanzamos veíamos esa necesidad sin enfrentar. Finalmente, la decisión se tomó de manera unilateral por parte del equipo de educadoras del Centro Huarte, sin abrir un debate a fondo al respecto con el alumnado.

**Curso
2017 - 18
Ikasturtea**

2017
178



**Nola sortu zen edizio honetako proiektua? Lehenengo saioa.
¿Cómo surge el proyecto en esta edición? Primera sesión.**

Arte garaikidearekin genuen erlazioari buruzko elkarrizketa bat izan zen edizio honetako abiapuntua: Artistarik ezagutzen al dugu? Ba al dakigu nola egiten duen lan? Arte garaikidean ikerketa praktikoa egin daiteke beste zientzietan bezala? Sorkuntza artistikoaren helburu bakarra al da formak sortzea (ahal den heinean, politikak)?

Artistek gizartean duten funtzioaren inguruan eztabaidatu ondoren, proiektuaren helburuak finkatu genituen: gure jolastokian ikerketarako jarrera edukitzea eta ikerketatik proposamen artistikoak ateratzea.

Patioaren eguneroko eszenen inguruko apunteak jasotzen hasi ginen "sketch" moduko marrazkiekin.

1.

En esta edición tomamos como punto de partida una conversación sobre nuestra relación con el Arte Contemporáneo: ¿Conocemos a algún/a artista? ¿Conocemos cómo trabaja? ¿Se puede investigar desde la práctica del arte contemporáneo como se hace en otras ciencias? ¿La creación artística tiene como objetivo únicamente crear formas a ser posible bonitas?

Después de debatir sobre la función del/a artista en la sociedad, planteamos los objetivos de nuestro proyecto: Desempeñar una actitud investigadora en Nuestro Patio generando como resultado de nuestra investigación algunas propuestas artísticas.

Comenzamos tomando apuntes mediante el dibujo tipo "sketch" sobre escenas cotidianas del patio.

2.

Erreferente batzuk, eta nola erabili genituen. Algunos referentes y cómo se usaron.



Anette Messenger.
Argazkia: Marie
Clerin/Hayward
Gallery

Anette Messenger.
Fotografía: Marie
Clerin/Hayward
Gallery

Pasa den mendeko 60. hamarkadatik aurrera, "artistiko" kontsideratzen ez ziren objektuak eta materia pilatzeak arte garaikidea aztertzeke eremu ireki bihurtu du instalazio artistikoen generoa pixkanaka. Instalaziorako ez denez eskuzko trebetasun jakinik behar, sormenezko esperimantazio demokratikorako aukera ematen du praktika horrek.

Era beran, 80. hamarkadatik aurrera, bideoa eta proiektzioa modu nabarian batu zaizkio arte garaikidearen munduari objektuak desmaterializatzeko saiakeren bidez. Paretan proiektatutako bideo-pantailak mihisearen funtzioa dauka, eta, gure kasuan, ikerketak islatzeko euskarri gisa balio izan zigun, gure jolastokian gertatzen zenaren gainean hausnartzen jarraitzeko.

Azkenik, espazioak berak aukera ematen du formekin eta konposizioekin 1:1 eskalan lan egiteko, eta guk gorputz osoa erabili genuen.

Desde los años 60 del siglo pasado, la acumulación de objetos y materia que en principio no eran considerados "artísticos" ha ido consolidando el género de instalaciones artísticas como un territorio abierto para la exploración en arte contemporáneo. Al tratarse de una práctica que no requiere una habilidad manual específica, la instalación nos ofrece la posibilidad para una experimentación creativa democrática.

De la misma manera, desde los 80 el vídeo y la proyección se han incorporado notablemente en el mundo del arte contemporáneo a través de la búsqueda de la desmaterialización del objeto. La pantalla de vídeo proyectada sobre la pared actúa como lienzo y, en nuestro caso, como soporte donde volcar nuestras investigaciones para seguir reflexionando sobre lo que pasa en Nuestro Patio.

Finalmente, el espacio en sí mismo nos ofrece como material la posibilidad de trabajar con las formas y las composiciones en una escala 1:1 en la que participamos con todo nuestro cuerpo.



Richard Serra.
Inside Out,
2013. Argazkia:
Gagosian
Galeria. New
York hiria.

Richard Serra
Inside Out.
2013. Gagosian
Gallery. NYC

3.

Lan-saioen bidezko prozesuaren eskema. Esquema del proceso por sesiones de trabajo.



Bigarren saioa: Gure jolastokian ikertutakoa komunean jarri genuen ahoz. Instalazio artistikoaren gaia azaldu, eta jolastokiaren airetiko ikuspegi bat osatu genuen hainbat material erabilita.

- Denbora: Ordu 1 eta erdi. // Materiala: argazki-kamerak, kuxinak, oihalak, tutuak, kartoia, papera, etab.

Segunda sesión: Ponemos en común las investigaciones que hemos realizado en Nuestro Patio de manera oral. Introducimos el tema de la instalación artística y nos dedicamos a recrear una vista aérea a gran escala del patio con diferentes materiales.

- Tiempo: 1 hora y media. // Materiales: cámaras de fotos, cojines, telas, tubos, cartones, papeles, etc.

Hirugarren saioa: Collage edo marrazki hedatu bat sortu genuen gure instalazioaren argazkiaren gainean. Jolastokian egindako lehenengo ikerketan lortutako ekintzak formatu horretan kokatu genituen. Horri esker, gogoeta sakona bultzatu genuen problematikak hautemateko asmoz.

- Denbora: Ordu 1. // Materiala: instalazioaren argazkiaren fotokopiak, guraizeak eta itsasgarria.

Laugarren saioa: Jolastokiaren Google Maps-eko argazki bat proiektatu genuen uhin-kartoi marroizko bi zatiren gainean. Margo akrilikoekin irudia kalkatu, eta jolastokiari buruz ikasitakoa adierazten zuten ikurrak kokatu genituen oso modu eskematikoan. Hauteman genituen arazoak eta adierazi nahi izan genituen konponbide posibleak ere irudiaren gainean markatu genituen.

- Denbora: Ordu 1 eta erdi. // Materiala: proiektorea eta ordenagailua, uhin-kartoiaren biribilki bat, margo akrilikoak eta pintzelak.

Tercera sesión: Creamos un collage o dibujo expandido sobre la foto de nuestra instalación. En ese formato colocamos las acciones recogidas en nuestra primera investigación en el patio, favoreciendo una profunda reflexión con la intención, además, de detectar problemáticas.

- Tiempo: 1 horas. // Materiales: Fotocopias de la foto de la instalación, tijeras y pegamentos.

Cuarta sesión: Proyectamos una foto del patio obtenida a través de Google Maps sobre dos trozos de rollo de cartón marrón ondulado. Calcamos la imagen sobre el cartón con pintura acrílica y situamos de una manera muy esquemática símbolos que remiten a nuestros descubrimientos sobre el patio. En el caso de haber detectado problemas y querer señalar posibles soluciones, también se marcarán sobre la imagen.


- Tiempo: 1 hora y media // Materiales: Proyector y ordenador, cartón ondulado en rollo, pintura acrílica y pinceles.


Bosgarren saioa: Margotutako kartoi-zati handiekin, esku-hartze posibleak sortu genituen jolastokian. Material horren artikulazioak espazioan eskaintzen dituen aukerak probatu genituen, pasabide, zubi eta txoko ezkutatuak sortuz.

- Denbora: Ordu 1. // Materiala: kartoia.

Quinta sesión: Con las grandes piezas de cartón pintadas, generamos posibles intervenciones en el patio. Probamos las diferentes posibilidades que ofrece el material en su articulación en el espacio creando nuevos pasillos, puentes y rincones ocultos.

- Tiempo: 1 hora // Materiales: Cartón.





Esperientzia honetatik sortutako galdera. Pregunta surgida de esta experiencia.

Ba al dago loturarik jolastokiaren eta ikasgelako heziketa- prozesuen artean?

Aurreko edizioan ez bezala, hasieratik pentsatu genuen proiektuaren bukaerako formatua. Patioan esku hartzea haustura-elementu gisa ikusten genuen, egindako lana mahaigaineratzeko eta prozesuan sortutako gogoetak hezkuntza-komunitatearekin partekatzeko. Ez genekien zer izan zitekeen, zer esku-hartze sortuko genuen, baina etorkizun kontzeptual definituago bati begiratuta, proiektua eraikitzen joan ginen poliki-poliki.

¿Existe una vinculación entre el espacio de recreo y los procesos educativos en las aulas?

A diferencia de la edición anterior, nos planteamos desde el inicio un formato final para el proyecto. Veíamos una intervención en el patio como elemento disruptivo con el que poner en valor el trabajo realizado y compartir con la comunidad educativa las reflexiones generadas en el proceso. No sabíamos qué podía ser, qué posible intervención podíamos crear pero, con la mirada puesta en un horizonte conceptual más definido, fuimos construyendo el proyecto poco a poco.

1.

Nola sortu zen edizio honetako proiektua? Lehenengo saioa. ¿Cómo surge el proyecto en esta edición? Primera sesión.

Ikasturte honen hasieran, aurreko edizioak aztertu genituen eta gure jolastokian bizitako ondoez posibleei buruz hitz egin genuen. Lehenengo elkarrizketa horretan aurkitu genuen lantzeko gaia: zauriak.

Galdetegi bat prestatu genuen, hurrengo lan-saioari ekin baino lehen ikasgelan lantzeko. Min hartu duzu inoiz jolastokian? Baduzu edo izan zenuen zauririk? Zauria ikus daiteke edo ez (emozionala)? Gogoratzen duzu non hartu zenuen min? Gorputzeko zein ataletan? Jolastokiko zein tokitan? Nola sentitu zinen? Une horretan ate magiko bat irekitzeko aukera izan bazenu beste espazio eta garai batera joateko, nora eramango zintuzke?

Comenzamos este curso analizando las anteriores ediciones y conversando sobre los posibles malestares que habíamos vivido en Nuestro Patio. En esa primera conversación, detectamos el tema con el que trabajar: las heridas.

Creamos una ficha con preguntas para que trabajaran en clase antes de la siguiente sesión de trabajo. ¿Te has hecho daño alguna vez en el patio? ¿Tienes o tuviste una herida? ¿Una herida visible o invisible (emocional)? ¿Recuerdas dónde te hiciste daño? ¿En qué parte del cuerpo? ¿En qué lugar del patio? ¿Cómo te sentiste? Si en ese momento hubieses podido abrir una puerta mágica a cualquier otro espacio y tiempo, ¿a dónde te llevaría?



2.

Erreferente batzuk, eta nola erabili genituen. Algunos referentes y cómo se usaron.

Pasa den mendeko 60. eta 70. hamarkadetako pentsamolde artistiko situazionistan inspiratuta, egoera eraikiak eragin genituen jolastokiari ohiz kanpoko ikuspuntu batetik erreparatu ahal izateko. Une oro, kontuan izan genuen haurtzaroko ekintza asko jolastokitik abiatzen direla naturaltasun osoz; esaterako, eskolak amaitu ondoren egiten den etxerako bide bakoitza bidaiara sinbolikoa da, eta beste guztiengandik desberdina.

Arte garaikideak sarritan bere buruari erreferentzia egiten dion arren, edozein jakintza motak eman diezaieke koherentzia gure planteamenduei. Kasu honetan, mapak baliatu genituen berriro, haien elementuetako batean arreta jarritz: sestra-kurbak.

Nos inspiramos en el pensamiento artístico situacionista de los 60s-70s del siglo pasado para provocar situaciones construidas que nos permitan mirar nuestro patio desde un punto de vista no cotidiano. Pero siempre teniendo en cuenta que muchas acciones de la infancia se realizan de forma espontánea desde ese lugar, por ejemplo, cada camino de vuelta a casa después de la escuela es un viaje simbólico totalmente diferente a los demás.

Aunque muchas veces el arte contemporáneo es autorreferencial, lo cierto es que cualquier tipo de saberes puede dar coherencia a nuestros planteamientos. En este caso, volvemos al recurso del mapa, centrándonos en uno de sus elementos: las curvas de nivel.

Eva Fábregas.
Enredos, 2019.
Argazkia: TEA
Tenerifeko Arte
Espazioa.

Eva Fábregas.
Enredos, 2019.
Fotografía: TEA
Tenerife Espacio
de las artes.

Eva Fábregasen instalazioek eskala handiko gorputzasuna eta gorputzetik kanpoko ekartzen dute gogora. Haren obrak ikusi genituen bi dimentsioetatik hiru dimentsioetara jauzi egiteko, material bigunez egindako eskulturak landuz.

Las instalaciones de Eva Fábregas nos remiten a lo corporal a gran escala y fuera del cuerpo. Visualizamos sus obras para animarnos a saltar desde las dos a las tres dimensiones, trabajando con esculturas de materiales blandos.



3.

Lan-saioen bidezko prozesuaren eskema. Esquema del proceso por sesiones de trabajo.

Bigarren saioa: Lehenengo saioaren ondoren landutako galdetegiak hitz egin genuen. Ondoren, ikasleek beren orbainak erakusteko zuten interesa ikusita, azalean zituzten zaurien argazkiak egiteko aukera eman genien. Saioaren ondoren, jolastokira jaitsi ginen espazioan barna deriba bat egiteko. Ilaran, bakoitzak eranskailu bat itsatsi zuen min hartu zuen tokian, gainerakoek kontakizuna entzun bitartean.

- Denbora: Ordu 1. // Materiala: argazki-kamerak eta eranskailuak.

Segunda sesión: Comentamos la ficha que habían trabajado en clase tras la primera sesión. Después de la conversación y admirando el interés del alumnado por mostrar sus cicatrices, les ofrecemos la opción de hacer fotografías de sus heridas en la piel. Después de la sesión de fotos bajamos al patio para realizar una deriva por el espacio. En fila, cada persona pega una pegatina en el lugar del patio donde se hizo daño, mientras las demás escuchamos su relato.

- Tiempo: 1 hora. // Materiales: cámaras de fotos y pegatinas.



Hirugarren saioa: Orbainen argazkiak tamaina handian inprimatu genituen horien gainean lan egiteko, eta, mapa bat balira bezala, haiek irakurtzeko elementuak gehitu genizkien: gure zauriaren sestra-kurben legenda.

Kontsolamendua eta minaren gainditzea (lehenengo saioan aipatu genuen “ate magikoa”) hartu genituen erreferentziatzat.

Mina dugunetik zauria sendatzen den arte pasatzen ditugun faseetan pentsatu genuen, eta kolore bana esleitu genien. Taldeka, orbainen argazkiak margotu genituen, sendatzearen fase bakoitzaren espazioa markatuz.

- Denbora: Ordu 1 eta erdi. // Materiala: orbainen argazki inprimatuak (plotterra erabiltzeko aukerarik egon ezean, zatika inprimatu eta itsats daitezke), koloretako argizariak.

Tercera sesión: Trabajamos sobre las fotografías de las cicatrices impresas en un gran tamaño y, como si de un mapa se tratasen, añadimos elementos de lectura: la leyenda de las curvas de nivel de nuestra herida.

Tomamos como referencia la idea de consuelo y de superación del dolor (la “puerta mágica” a la que hacíamos referencia en una pregunta en la primera sesión).

Pensamos en los pasos por los que pasamos desde el dolor a la sanación de la herida y les asignamos diferentes colores. Por grupos, pintamos las fotografías de las cicatrices delimitando los espacios para las diferentes fases de esta sanación.

- Tiempo: 1 hora y media. // Materiales: Fotografías de las heridas impresas (si no hay posibilidad de utilizar un plotter para hacerlo a gran escala, se pueden imprimir por partes y pegarlas), ceras de colores.

Laugarren saioa: Eva Fábregasen obrak ikusi genituen eta pentsatu genuen ea zer forma hartuko luketen gure zauriek, margotuta zeudenez gero, sumendi baten antzera irekiko balira. Hainbat material bigunekin zauriak eraldatu egin genituen bi dimentsiotatik hiru dimentsiotara pasatzeko, eta instalazio artistiko bat sortu genuen.

- Denbora: Ordu 1 eta erdi. // Materiala: oihalak, plastikozko tapoiak, egurra, kartoia, papera...

Cuarta sesión:

Visualizamos las obras de Eva Fábregas y nos planteamos qué formas crearían nuestras heridas, ahora pintadas, si se abrieran como un volcán. Con diversos materiales blandos transformamos nuestra herida pasando de las dos a las tres dimensiones generando así una instalación artística.

- Tiempo: 1 hora y media // Materiales: telas, tapones de plástico, maderas, cartones, papeles...



Bosgarren saioa: Gure zauriak eskolako komunitatearekin partekatzeko asmoz, azken saioan gure sorkuntzak patioan instalatu genituen, eta jakin-minez hurbiltzen zirenekin hitz egin genuen.

- Denbora: Ordu 1. // Materiala: aurreko saioetan egindako lan guztia, sokak, guraizeak, zinta itsaskorrak, bridak.

Quinta sesión: Con el objetivo de compartir la transformación de nuestras heridas con la comunidad de la escuela, dedicamos la última sesión a instalar nuestras creaciones en el patio y a conversar con las personas interesadas que se acercaban con curiosidad.

- Tiempo: 1 hora // Materiales: todo el trabajo realizado previamente, cuerdas, tijeras, cintas adhesivas, bridas.



Esperientzia honetatik sortutako galdera.

Pregunta que nos surge de esta experiencia.

Zer puntutaraino sartzen dira ikasleen bizipenak sortzen ditugun heziketa-prozesuen erdigunean? Nola lor daiteke hori?

Gure ustez, ondoezetatik eta ondoezek gorputzean uzten diguten arrastotik hitz egiteari esker, taldearen inplikazioa eta kohesioa aurreko edizioetakoa baino sakonagoa izan zen. Espazio partekatuari begiratu baino lehen minari lotutako gorputz-esperientzien balioa azpimarratzean, jolastokia birpentsatzeko toki segurua sortu izanaren sentrazioa genuen.

¿Hasta qué punto la experiencia del alumnado es puesta en el centro de los procesos educativos que generamos? ¿Cómo se puede hacer?

Creemos que hablar desde los malestares y desde su huella en nuestro cuerpo ha posibilitado una implicación y cohesión en el grupo algo más profunda que en ediciones anteriores. Al mirar al espacio compartido desde la puesta en valor de experiencias corporales vinculadas al dolor, tenemos la sensación de haber generado un lugar seguro desde el que repensar el patio.



1.

Nola sortu zen edizio honetako proiektua? Lehenengo saioa. ¿Cómo surge el proyecto en esta edición? Primera sesión.

Non hasi eta non bukatzen da gure jolastokia? Jolastokiaren mugak eta hura mugatzen duten atalak behatu genituen. Edizio honetan munduko mugei buruzko gogoeta egin genuen gure testuinguru zehatzetik. Zer dira mugak? Nork sortzen ditu? Berdinak al dira pertsona guztientzat? Muga mota desberdinak al daude? Naturalak? Artifizialak? Kulturalak? Muga linguistikoak, klase sozialenak, ideien arteko desadostasunek eragindakoak? Eta gure jolastokian, ba al dago mugarik? Ikus daitezke ala ikusezinak dira?

¿Dónde empieza y dónde termina Nuestro Patio? Observamos los límites y las partes que acotan las dimensiones del patio. En esta edición reflexionamos sobre las fronteras en el mundo desde nuestro contexto específico. ¿Qué son las fronteras? ¿Quién las crea? ¿Son iguales para todas las personas? ¿Existen diferentes tipos de fronteras? ¿Naturales? ¿Artificiales? ¿Culturales? ¿Fronteras lingüísticas, de clases sociales, de diferencias de ideas? ¿Y en Nuestro Patio existen fronteras? ¿Se pueden ver o son invisibles?



2.

Erreferente batzuk, eta nola erabili genituen. Algunos referentes y cómo se usaron.

Daniela Ortiz artista eta aktibista perutarra da. Islatzen dugun irudi eurozentrismaren kanpoaldeko ikuspegia eskaintzen digu. "El ABC de la Europa Racista" liburuan, migratzaileen komunitateak gure lurraldean bizi duen errealitatea deskribatzen du haurrentzako liburu baten formatuan.

José Palazón aktibistak Melillako hirira iristen diren adin txikikoen eskubideen alde egiten du. Hesiari egin zion argazkiak, golf-zelaiarekin kontrastean, munduari bira eman zion.

Jane Terrazas artista gaztea Ciudad Juarez-en bizi da eta bertan egiten du lan. Hesi batek zeharkatzen du bere hiria, eta ezinezko egiten du hiritarren garapena metro gutxi batzuek banatutako eremuan. Konnotazioz betetako lurralde horretan egindako lanak definitzen ditu Janeren artelanak.

Melillako golf zelaia. Atzean migranteak hesiaren gainean. Argazkia: José Palazón.

El campo de golf de Melilla. Detrás inmigrantes sobre la valla. Fotografía copyright José Palazón.



Jane Terrazas
EEBB eta Mexiko
arteko muga
eremuan. Iturria:
mustangjane.
tumblr.com

Jane Terrazas
en territorio
fronterizo
entre EEUU y
México. Fuente:
mustangjane.
tumblr.com



Daniela Ortiz es una artista y activista de origen Peruano que nos ofrece una visión externa de la imagen Eurocentrista que proyectamos al exterior. Su libro "El ABC de la Europa Racista" nos describe en código de libro infantil la realidad de la comunidad migrante en nuestro territorio.

José Palazón es un activista por los derechos de los menores que llegan a la ciudad de Melilla. Su fotografía de la valla en contraste con el campo de golf dio la vuelta al mundo.

Jane Terrazas es una joven artista que vive y trabaja en Ciudad Juárez. El territorio de su ciudad está atravesado por una valla que excluye a sus habitantes de la posibilidad de su desarrollo en una ciudad separada por escasos metros de distancia. El trabajo sobre este terreno con todas sus connotaciones define las obras de arte de Jane.

3.


Lan-saioen bidezko prozesuaren eskema. Esquema del proceso por sesiones de trabajo.

Bigarren saioa: Bigarren saioari ekiteko, gure jolastokiaren mugekin zerikusia duten ideiak komunean jarri genituen: muga naturalak (hala nola, ibaia), artifizialak (hesia, adibidez) eta baita ikusezinak ere (euskarako eta gaztelaniako espazioak banatzen dituen, esaterako). Taldeka, balizko komunitate bat asmatu genuen, toki jakin batean biziko zena, modu jakin batean jantziko zena eta berezko jarduerak egingo zituen. Asmatutako lurralde eta kultura bakoitza izendatu, eta kolore bat esleitu genion, gero gelakideekin komunean jartzeko. "Nazio" berri bakoitzari jolastokiko eremu bat eman genion, eta gure lurraldea irudikatuko zuen mapa edo marrazki erraldoi bat osatu genuen hainbat materialekin.


- Denbora: Ordu 1 eta erdi. // Materiala: papera eta arkatza, kartoia, oihala, papera, tutuak.

Segunda sesión: Comenzamos la segunda sesión poniendo en común las ideas que surgen en relación a las fronteras de Nuestro Patio: fronteras naturales como el río, artificiales como la valla e incluso algunas invisibles como la que separa los espacios entre euskera y castellano. Por grupos, ideamos una hipotética comunidad que habita un lugar particular, vestidos de determinada manera y que realizan actividades características. A cada territorio y cultura inventada le ponemos un nombre y un color para después ponerlo en común con el resto de clase. Asignamos a cada nueva "nación" un lugar del patio y con diversos materiales generamos un mapa o dibujo gigante representando nuestro territorio.

- Tiempo: 1 hora y media. // Materiales: Papel y lápiz. Cartones, telas, papeles, tubos.



La montaña o el cerro	
El camino o la escalera	
El centro o el "ojo"	



Tarahumara ohialen patroiak. Iturria: Sabina Aguilera - Ispiluan zehar, jatorrizko bidea oroitzen. Tarahumaren mitologi eta ritualen azterketa ikonografiko bat.

Patrones de tejidos Tarahumara. Fuente: Sabina Aguilera* Mirando a través del espejo, recordando el camino primigenio. Un análisis iconográfico a la luz de la mitología y el ritual de los tarahumaras.

Hirugarren saioa: "Gure lurraldeek" osatutako marrazki hedatuaren argazkiari begiratu genion eta asmatutako identitateak gogoratu genituen. "Gure lurraldeen" arteko mugek jolastokiko zonaldeen arteko mugikortasuna oztopatzen zutela suposatu genuen, eta horrek ekar zitzakeen eraginak eztabaidatu.

Jane Terrazasek Mexiko eta Estatu Batuen arteko mugaren inguruan egindako lana ezagutu genuen. Batzuetan, mugako Ralámuli komunitatearekin egiten du lan, eta haien ehun-gaietan jarri genuen arreta. Jolastokiko hesia sare edo ehungailu gisa erabiltza, begi kosmiko batzuk sortzen hasi ginen; horien bidez gure komunitatea kanpoaldearekin erlazionatzea zen helburua.

- Denbora: Ordu 1 eta erdi. // Materiala: lorategiko sare zatiak, artilea eta koloretako zapitxoak, guraizeak.

Tercera sesión: Visualizamos la fotografía del dibujo expandido de nuestros diferentes "territorios" y recordamos nuestras identidades inventadas. Suponemos que las fronteras entre "nuestros territorios" impiden la movilidad entre las diferentes partes de Nuestro Patio y debatimos sobre las consecuencias.

Conocemos el trabajo de Jane Terrazas en torno a la frontera entre México y Estados Unidos y fijamos nuestra atención en los textiles de la comunidad fronteriza Ralámuli con los que a veces trabaja. Entendiendo la valla del patio como red o telar comenzamos la creación de unos ojos cósmicos a través de los cuales poner en relación nuestra comunidad con el mundo exterior.

- Tiempo: 1 hora y media. // Materiales: Trozos de red para jardinería, lanas y trapillos de colores, tijeras.



OHARRA: Proiektua bertan behera gelditu zen Covid-19ak eragindako alarma-egoeraren ondorioz. Lorategiko sare zati txikietan begi kosmikoen prototipoak egin ondoren, koloretako zinta zabalagoekin esku-hartzea zen ideia, jolastokia eta kalea banatzen dituen hesian bertan.

NOTA: Este proyecto quedó suspendido a consecuencia del estado de alarma a causa de la pandemia por la Covid-19. La intención era, una vez generado los prototipos de ojos cósmicos sobre pequeños trozos de valla de jardín, intervenir directamente con cintas de colores más anchas sobre la valla que separa el patio de la escuela de la calle.



Esperientzia honetatik sortutako galdera. Pregunta que nos surge de esta experiencia.

Nola landu, aldatu, desagerrarazi edo eralda daitezke mugak jolastokia bezalako espazio batean? Hau da, egunero-egunero mugek zedarritzen duten espazio batean?

Izan ere, jolastokia, definizioz, espazio zedarritua da; mugatua. Baina ez modu fisikoan soilik. Jolastokian sortzen diren bazterketek edo mugek eskola bera gainditzen duten auziak azaleratzen dituzte.

¿Cómo trabajar las fronteras, cambiarlas, hacerlas desaparecer o transformarlas en un espacio como el patio que vive cotidianamente con la frontera como límite, como definición del propio espacio?

El patio, por definición, es un espacio acotado, es decir, limitado. Pero no exclusivamente de manera física. Las exclusiones o fronteras que se generan en el patio dan cuenta de cuestiones que trascienden a la propia escuela.

**Ba al dago
loturarik
jolastokiaren
eta
ikasgelako
heziketa-
prozesuen
artean?**

**¿Existe una
vinculación
entre el
espacio de
recreo y los
procesos
educativos
en las aulas?**

CPEIP Virgen Blanca HLHIP - Patricia Aguilera Villalobos

Galdera horri erantzutea nahiko zaila izan daiteke, begiratzen zaion ikuspuntuaren arabera. Izan ere, espazioak hezkuntza-baliabidetzat hartzen baditugu, heziketarako espaziotzat har genezake jolastokia dudarik gabe; ikasleen heziketa-prozesuak modu erabat librean jarraitzen du bertan, beren gaitasun guztiak garatzen laguntzen dien giro gogo-pizgarri baten baitan.

Gaur egun badaude jolastokia modu horretan ulertzen duten korrante pedagogikoak, eta, horren harira, hezkuntza-zentroetan (batez ere gurasoen elkarleen aldetik) sustatu egiten da azken urteotan gailendu den hormigoia kentzea eta naturarako tokia duten jolastokiak sortzea, jendearekin harremanetan egoteko, irudimenaz gozatzeko eta hura garatzeko. Azken batean, guztiak elkar daitezkeen espazio bat lortu nahi da, non lasai egoteko nahiz jardueretan aritzeko txokoak dauden.

Jolastokiaren espazioa aldatzea ez da helburu bakarra: hezkuntza ikusteko era ere aldatu nahi da, zentzu eta maila guztietan.

Hori dela eta, jolastokiaren eta ikasgelako heziketa-prozesuen artean lotura badagoela esan dezakegu, ikasleek modu erabat librean ikasten jarraitzen baitute giza-harremanen, jolasen eta inguruarekin dituzten esperientzien bidez.

Gure zentroan lotura hori ez da nahita egin, lehenago aipatu dudana bezala, espazioa ez baitago horretarako prest. Baina Uharteko Arte Garaikide Zentroak planteatutako "Gure jolastokia" proiektuari esker, ikasle batzuek aukera izan dute jolastokian bizitakoak eta ikasgelako heziketa-prozesuak modu erabat kontzientean lotzeko.

Bizitako ekintza guzti horiek berreskuratu ahal izan dituzte, hitzez adieraziz, hasieran ikasgelan partekatuz, eta, gero, bizipenak gertatutako toki zehatzean "in situ" gogoratuz. Esperientzia horren bidez, jolastokian gertatzen zaien guztiaren garrantziaz jabetu ahal izan dira, zer sentimendu pizten dituen, zer harreman sortzen diren (norberarekin nahiz besteekin), nola laguntzen dien pertsona gisa garatzen eta beren buruak ezagutzen.

Ariketa horri esker, jolastokira ateratzearen ohiko jarduera modu sakonagoan ikusi dute; izan ere, bizipenak berriro bizitzeak lagundu egin die beren ekintzak hausnartzen eta beren izaeran eragin duten pasarte gisa ikusten.

Esta pregunta puede ser bastante complicada de responder según la perspectiva desde donde se mire. Ya que, si se consideran los espacios, como tal, como recursos educativos, sin duda, el espacio del recreo, lo podríamos considerar un espacio educativo ya que en él, el alumnado sigue su proceso de aprendizaje de una manera totalmente libre, dentro de un ambiente totalmente estimulante que le ayuda a desarrollar todas sus capacidades.

Actualmente hay varias corrientes pedagógicas que consideran este espacio como tal y es por ello que desde los centros educativos, sobre todo desde las asociaciones de padres y madres se promueve crear patios donde haya espacios para la naturaleza, para poder socializarse, para poder disfrutar y desarrollar su imaginación, eliminando todo aquel hormigón que tanto ha estado de moda estos últimos años. Por lo tanto, un espacio donde se puedan encontrar todos y todas para buscar tantos rincones de tranquilidad, como de actividad.

No sólo se trata de buscar un cambio en el espacio del patio, sino que esto también supone un cambio en la visión de la educación en todos sus aspectos y niveles.

Por lo tanto, podemos considerar que sí que hay una vinculación entre el espacio de recreo y los procesos educativos del aula, ya que de una manera totalmente libre el alumnado sigue aprendiendo a través de las relaciones sociales, de sus juegos y de sus propias experiencias con el entorno.

En nuestro Centro, podemos considerar que esta relación no ha sido de una manera intencionada, ya que este espacio no está preparado como he comentado anteriormente, pero gracias al proyecto "Nuestro Patio" planteado desde el Centro de Arte Contemporáneo de Huarte, sí que una parte del alumnado ha tenido la oportunidad de vincular de una manera totalmente consciente las vivencias transcurridas en el patio con el proceso educativo del aula.

El alumnado ha podido recuperar todas esas acciones vividas, verbalizándolas y compartiéndolas primero en el aula para luego recordarlas "insitu" dónde las vivió, en qué punto exacto del patio. Esta experiencia les ha brindado la oportunidad de ser consciente de la importancia de todo aquello que les ocurre en el patio, qué sentimientos crea, qué relaciones surgen, tanto consigo mismos como con los demás, cómo les ayuda a desarrollarse como personas y a conocerse.

Es por ello por lo que, gracias a esta actividad, han podido ver algo tan cotidiano como salir al patio como algo más profundo, ya que esas vivencias revividas les ha ayudado a reflexionar sobre sus propios actos y verlos como episodios que han influido en su forma de ser.

CP Gloria Larrainzar IP - Ainhoa Artxanko Mantxo.

Jolastokia funtsezko tokia da bertan egoten diren pertsona guztien heziketarako. Ikasleak eta irakasleak ez dira ohiko moduan erlazionatzen. Irakasleok aukera izaten dugu gaztetxoan portaera "estutu gabea" ikusteko; izan ere, ikasgelan zailagoa da altzarien antolaeragatik, espazioarengatik eta elkarbizitza-arauengatik.

Zubiriko Gloria Larrainzar eskolaren kasuan, txikia denez, oso erraza da jolastokia erabiltzeko antolatzea, ia beti dago erabilgarri.

Nire kasuan, ezin nuen Heziketa artistikoko irakasgaia (Plastika) ulertu eskolaren kanpoko espazioa espazio didaktiko moduan erabili gabe. Lan asko egiten ditugu jolastokian (baita herrian ere); proiektu baten abiarazlea, behaketa, materialak bildu eta espermentatu... Pena litzateke "natura hilaz" hitz egitea inguruan ditugun "natura hilak" ezagutu gabe. Gehiago kostatuko litzaiguke gorputzen mugimenduaren ideari hurbiltzea eskolako zabuetan aztertuko ez bagenu. Arkitektura eta haren funtzionaltasuna hausnartzea eta kritikatzeko errazagoa da jolastokira ateratzen bagara eta inguruko eraikinak aztertzen baditugu: haien hutsuneak, ahalbideak... Hori dela eta, jolastokia eskolako ezinbesteko lekua dela deritzogu. Ikasten jarduten dugun ekosistema ahularen funtsezko

zatia da. Zementuzko futbol-zelaiaren presentzia indartsu eta gehiegizkoak beste joko eta esperientzien garapena oztopatzen du. Futbolak arau zurrinak ditu, gizonezkoek hartzen dute parte nagusiki, eta kirol horren inguruko zeremoniak ikasle asko eta proposamen lasaiagoak kanpo uzten ditu.

Eskola aldatzen ari da (eta aldatzeko asko dago oraindik). Aurreko garaietako ikasgeletako zurruntasuna atzean geratzen ari da, eta pentsamolde desberdina, sormenezkoa eta berdintasunezkoa iristen. Eskolako beste eremuak kutsatzen ari dira, halabeharrez.

Badirudi naturako elementuen presentzia (ura, zuhaitza, haizea, belarra, lurra, egur bizigabea...) egokiagoa dela galdera berriei erantzuteko, nahiz eta betiko galderen eguneraketa baino ez izan. Ikasketaren esperientzia aberastu, ireki eta urrundu egiten da atsedendietan, eta nahi kolektibo berriak sortzen dira.

Ikasgelan ikasten duen taldeak beste baliabide didaktiko bat dauka leihotik begiratzen duenean.

Eskola eredugarri batean, eremu bakoitzak esperientzia bana emango luke, baina beti eskola horren filosofiaren baitan.

Zain ditzagun eskoletako jolastokiak ikasketara benetakoagoa izan dadin!

El patio es un lugar fundamental para la educación de todas las personas que en él habitan. El alumnado y el profesorado se relaciona de una forma diferente. Al profesorado nos da muchas pistas para ver el comportamiento "menos encorsetado" de la chavalería en aula, por cómo está la disposición del mobiliario, el espacio y las propias normas de convivencia.

En el caso de la escuela Gloria Larrainzar, de Zubiri, al ser una escuela pequeña, la organización de la utilización del patio es muy sencilla, casi siempre está disponible.

En mi caso, no podría entender la asignatura de Educación Artística (Plástica) sin el espacio exterior de la escuela como espacio didáctico. Muchos trabajos los realizamos en el patio (también en el pueblo); desde el detonante para un proyecto, la observación, recogida de materiales y experimentación... Sería una pena hablar del "bodegón" sin conocer antes los "bodegones" que nos rodean en nuestra vida cotidiana. Nos costaría más acercarnos a la idea del cuerpo en movimiento sin estudiarlo en los columpios de la escuela. La reflexión y la crítica de la arquitectura y su funcionalidad, es más fácil si salimos al patio y analizamos las construcciones que nos rodean, sus carencias, sus posibilidades... Por todo esto, creemos que el patio es un lugar imprescindible en la escuela. Es una parte fundamental en el frágil ecosistema en el que aprendemos. La presencia, poderosa y excesiva, del campo de fútbol de cemento, obstaculiza el desarrollo de otros juegos, de otras experiencias. La ceremonia en torno

a este deporte, de normas cerradas, con participación abrumadoramente masculina, expulsa de su entorno a gran parte del alumnado así como a otras propuestas más calmadas.

La escuela está cambiando (y tiene mucho por cambiar). La rigidez de las aulas en tiempos anteriores comienza a dejar paso a un pensamiento diverso, creativo e igualitario. El contagio en el resto de espacios escolares se torna inevitable.

La presencia de elementos naturales: el agua, el árbol, el viento, la hierba, la tierra, la madera inerte... parece una respuesta mucho más adecuada a las nuevas preguntas (que no dejan de ser una actualización de las de siempre). La experiencia de aprendizaje en los descansos se enriquece, se abre, diverge, surgen nuevos deseos colectivos.

El grupo que aprende en la clase cuenta con un nuevo recurso didáctico al mirar por la ventana.

El ideal de escuela sería el que cada habitáculo nos aportara experiencias diferentes pero todas en la misma línea de la filosofía que tenga esa escuela.

¡Vamos a cuidar los patios de las escuelas para que el aprendizaje sea más auténtico!

gaurie

patioa

investro

patio

